



Bizkaiko Futbol Federakundea
Federacion Vizcaina de Futbol

HAUTESKUNDEAK 2020

16. AKTA

HAUTESKUNDE BATZORDEA

2020ko uztailaren 15ean, Bizkaiko Futbol Federazioaren egoitzan bildu ziren Hauteskunde Batzordeko kideak, eta aho batez hartu zuten honako erabaki hau.

B.F.F-ko Batzar Orokorra osatzeko behin-behineko emaitzekin lotuta egon litezkeen erreklamazioetarako emandako epea amaitu denez, Bizkaiko Futbol Federazioaren idazkaritzan idazki bat jaso da, Marta Montero Peña andrearen izenean, Stilo K.K.ko lehendakariaren izenean (erregistro-zenbakia: 102). Bertan, honako hau eskatzen da:

Batzarreko kideek, Areto Futboleko Kluben eta Kirol Elkarteen estamentuan, berriz hausnartu Behin-behineko Emaitzak, eta STILO KIROL KLUBA, 2020-2024 epealdi olinpikoko Batzar Nagusiko Klub Batzarkide izendatu.

Hautagai-zerrenden artean boto-berdinketa egonez gero, bere ustez lehentasuna eman behar zaio emakumez osatutako zuzendaritza-batzordeei dagokienari. Horretarako, Hauteskunde-Araudiaren 48. artikulua eta Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 53. artikulua hartuko ditu oinarri (2012ko otsailaren 19ko Agindua, hauteskunde-erregelamenduak egiteko eta kirol-federazioak hautatzeko irizpideak ezartzen dituen). Hauteskunde Batzorde honek

ERABAKITZEN DU

Eskaera hori **EZESTEN DA**; izan ere, eskatzaileak lehen aipatutako eta kasu honetan aplikagarri diren arauzko manuek, hautagaitzen arteko berdinketaren kasuetan, haien interpretazio literal eta sistematikoaren arabera, emakumeen hautagaitzak soilik gailentzen dira pertsona fisikoen kasuetarako (kirolarien estamentuak, epaileak eta teknikariak), eta ez klubetarako edo kirol-erakundeetarako hautagaitzen kasuan, hori baita hizpide dugun kasua.

Kasu honetan, eskatzaileak STILO K.K. kirol-erakunde gisa aurkeztu zuen bere hautagaitza, klub hori ordezkatzeko pertsona emakumea edo gizonetako den alde batera utzita, bai eta zuzendaritza-batzordea osatzen duten kideak ere.

Azken batean, eskatzaileak STILO K.K. Klubaren izenean eta hura ordezkatzeko baino ezin du jardun, eta berak egindako ekintzak eta STILO K.K.-ren jardun-esparruko hautagai izatea izango dira.

Bilbo, 2020ko uztailaren 15ean.

Hauteskunde Batzordea

Sinatuta: José I. Garcia



Sinatuta: José M.^a Bernedo



Sinatuta: Iñigo López-Uribarri

